

BURU TA BIOTZ

—Biotz, atozkit. Bakarrik gaude.
 Ixil geldia inguruan.
 Leio bi oiek itxi barrutik.
 Geldi bedi lurra kanpoan,
 Bion arteko yardun gozo au
 luzatuko al gaurkoan,
 maite-minduen ase-ezifñezko
 ixil-autuen giñoan.

Etxape baten biok bizi ta
 ia ez gera ezagun;
 nolaz duzu? auzoko izanik,
 nolaz alkarren ain urrun?
 Zu bide-zaitut bizi-kutxa nik:
 Yainkoak lèn-egnean
 lur-gizantz ari eman-bizia
 nabaitu zenun unean,
 bularrak beingoz puztu zenitun,
 ta, aldiz, irauli emakor,
 zabal zenien lagunai ere;
 zuri beraz dizute zor
 bizitz-arnasa. Geroztik emen.
 barnean zaitut nabari
 yarra ta yarra ordutikako
 bizitz-banatze lanari.

—Baiñan, ta nolaz dakizu ni noiz
 nazun Maite'k ukitua,
 ala ba-dudan kezka zitalik,
 ala Poz'ek naun artua?

—Alperrak yo antz, motel-motelik
zabilkit orain agian,
itsas geldian txalupa antzera;
gero lauoinka bizian,
basa-beor lez, punba ta punba
bular guzia astinduaz.
Nora bidean? Nori yarraituz?
Zeren billa alako suaz?

—Nere gogaian aldatze-berri
norgandik duzu yakiña?
Erakus, arren, bion arteko
zubi ezkutu sorgiña.

—Aize zakarrak zurrunbilloan
paper apurrak bezela,
jirabira itsu nâsi zoroan
or narabiltzu nai ala.
Or nonbait duzu amets-iturri,
negar-osiña ere urbil:
nere gogaian arauera arin
oietan oi nuzu murgil.
Zuregandik dut eragin zoro,
nerez ez bait-naiz aldakor;
pake-giroa besotik, ba-dut
zuzen-ibil-bidetxior.
Oztopo bage nenbilke ortik
ez bazinduket barnean
irrits-ametsak margoz yantzi-az
bide-okertze lanean.

Biok eskuak alkarri lotuz,
gaiten gaurgeroz lagun min;
bide-burua eldu-orduan
dukegu ortaz atsegin:
zuk ni argitzat izan nazazu
itsu zaranez ta ero;
ta, aldiz, altzoa nik otza izaki,
zu zaitzat nik indar, bero.